

IL AZALPEN PROBA • *Hogei mila legoako bidaia itsaspetik*

Kodea* Taldea

*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko

| | | |
|-----------|--|-------|
| Edukia | | / 2,5 |
| Moldea | | / 2,5 |
| Zuzentas. | | / 5 |
| GUZTIRA | | / 10 |

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor *idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...*
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazen bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 200 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Eguzkiak gauzarik txikiak ikusteko adina argi iragazten zuen uren azpian. Hamar minutuko ibilalditxo egin ondoren, bost metroko ura genuen gainean; ia laua zen lur-eremua, eta gutxika-gutxika aldatzen zen. Harea finaren ostean, karramarro ugariko haitz biribilduz beteriko bidea etorri zen. Zazpiak aldera, milioika perla-ostra ugaltzen ari ziren tokira iritsi ginen.

Bat-batean, haitzulo zabala agertu zen gure aurrean, itsaspeko lore ikusgarri estalitako haitzen arrear. Haitzuloan sartu ginen; laster, Nemo kapitaina gelditu egin zen, eta itzelezko maskor bat erakutsi zigun, keinu batez; bataiarri hura ur bedeinkatuzko aintzira bat edukitzeko gai zen, bi metroko zabalera baino handiagoa zuen eta. Itzelezko molusku harengana hurbildu nintzen, erdi irekita zeuden haren bi kuskua ikusteko. Han, toles haragitsuen arrear, intxaurren tamainako perla aske bat ikusi nuen. Jakin-minak bultzatuta, eskua luzatu nuen harrapatzeko, baina, ukitu nuenean, kapitainak geldiarazi egin zidan; eta itxi egin ziren bi kuskua.

Haitzuloa ikusi ondoren, lehengo bidea hatru genuen berriz ere. Lasai gindoazen, paseatzen bezala. Bat-batean, Nemo kapitaina gelditu egin zen, eta alboan geratzeko keinua egin zigun. Haren eskuak masa likidoko puntu bat seinlatu zuen.

| | |
|---|--------------|
| IL AZALPEN PROBA • <i>Hoge mila legoako bidaia itsaspetik</i> | |
| Kodea* | Taldea |
| *Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko | |

| | |
|-----------|-------|
| Edukia | / 2,5 |
| Moldea | / 2,5 |
| Zuzentas. | / 5 |
| GUZTIRA | / 10 |

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazen bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 200 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Koral itsasoa zeharkatu eta bi egun geroago, urtarrilaren 4an, Papuasiako kostaldera iritsi ginen; Ginea Berria ere esaten zaio lurralde horri. Torres itsasartean geunden.

Bat-batean, talka baten ondorioz, lurrera erori nintzen. Nautilus-ek hondoa jo zuen, itxuraz. Zutitu nintzenean, Nemo kapitaina eta haren bigarrena ikusi nituen bizkarrean. Ontziaren egoera aztertzen ari ziren. Ontziak ez zuen kalterik izan, baina itsasgora iritsi arte itxaron beharra zegoen, uraren indarrak ontzia handik atera zezan. Hala ere, Ozeano Bareko toki haietan, lau egun igaro daitezke itsasgora batetik bestera. Pazientzia behar zen, beraz. Ned Landek zer gertatu zen jakin zuenean, berehala galdetu zuen:

–Ezin al dugu lehorra ukitu, behintzat? Uharte bat dugu aurrean; uharte horretan, zuhaitzak daude, eta, zuhaitzen azpian, txuleta eta xerra ederrak dituzten lehorreko animaliak. Gustura jango nituzke halako batzuk.

Ned Landi atsegin ematearren, kapitainari proposatu nion, eta harrituta geratu nintzen kapitainak baimena eman zidanean. Emozioz beterik, prestakuntza guztiak egin eta, biharamunean, goizean goiz atera ginen.

IL AZALPEN PROBA • *Hogei mila legoako bidaia itsaspetik*

Kodea* Taldea

*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko

| | | |
|-----------|--|-------|
| Edukia | | / 2,5 |
| Moldea | | / 2,5 |
| Zuzentas. | | / 5 |
| GUZTIRA | | / 10 |

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nor *idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...*
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazenio bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko alde zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 200 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

–Onartzen dugu –erantzun nion–. Baina galdera bati erantzuteko eskatzen dizut: ontzian askeak izango garelako esan al duzu?

–Guztiz askeak. Batetik bestera ibiltzeko eta hemen gertatzen den guztia ikusteko eskubidea izango duzue.

–Uko egin beharko al diogu geure aberrira itzultzeari, geure familiak eta lagunak ikusteari?

–Bai, jauna. Baina, beharbada, ez da uste duzuen bezain mingarria izango.

–Hara bestea! –oihu egin zuen Ned Landek–. Zer uste duzu, ez naizela ihes egiten ahaleginduko? Ez dut inoiz horren hitzik emango!

–Ez dizut hitza eskatzen, Land jauna. Eta zu, Aronnax jauna, poztu egingo zara hemen egoteaz. Harrituta egongo zara, segurua asko, denbora guztian. Berritoki ikusi nahi dut, itsaspeko munduari beste bira bat emanez (beharbada, azkena niretzat), itsaso hauen hondoan aztertu dudako guztia. Inork ikusi ez duena ikusiko duzu; nik eta nire gizonak baino ikusi ez duguna.

Ezin dut ukatu: komandantearen hitzek poza eman zidaten. Hau baino ez nuen erantzun:

–Jauna, gizakiekin harremanak hautsi arren, giza sentimenduak gordetzen dituzula pentsatu nahi dut. Itsasoan galduta geundela, salbatu egin gaituzu, eta ez dugu hori ahaztuko.

Nire jakin-mina askea izateko guraria baino indartsuagoa da, eta ziur nago zure eskaintza probetxu handikoa izango dela niretzat.

IL AZALPEN PROBA • *Hoge mila legoako bidaia itsaspetik*

Kodea* Taldea

*Anonimotasuna, eraginik gabe kalifikatzeko

| | | |
|-----------|--|-------|
| Edukia | | / 2,5 |
| Moldea | | / 2,5 |
| Zuzentas. | | / 5 |
| GUZTIRA | | / 10 |

- > Hasteko, **kokatu** zati hori: aurkeztu obra, nork idatzia den, ezaugarri orokorrak, berezitasunak...
 - > Ondoren, **zehaztu** zatia (zer, nor(tzuk), non, zergatik...), eta hortik abiatu egizu iruzkina edo komentario orokorra, beti ere **obra ezagutzen ez duen irakurle bati** azalduko bazen bezala.
1. Idatzi orri zurian bakarrik. Orrialde honen atzeko aldea zure apunteetarako erabil dezakezu.
 2. Helburua –**lanean egin duzunari jarraiki**–: obraren ezaugarriak aipatzea, alderdi garrantzitsuenak azaltzea eta **iritzia** ematea (balorazioa).
 3. Azalpena argia izan dadila, eta kohesionatua, idazlan moldekoa. **EZ** idatzi zatiak eginez, txosten eran.
 4. Neurria: 200 bat hitz; txukun eta margenak utzita. Amaitutakoan, jarri hitz kopurua:

Ned Land bere tokira joan zen. Labeak bizitu egin zituzten, eta Abraham Lincoln gero eta bizkorrago zihoan, Mastek dardara egiten zuten, eta tximiniek ozta-ozta botatzen zuten ke guztia, Zetazeoa ere bizkorrago mugitzen hasi zen. Hura izan zen jazarpena! Hainbat aldiz, animaliak hurbiltzen utzi zigun.

–Badugu! Gainean gaude! –oihu egiten zuen kanadarrak.

Baina arpoia jaurtitzeko prest izaten zuen bakoitzean, zetazeoak alde egiten zuen, abiadura handiagoa hartuz. Eta ez hori bakarrik: abiadurarik handienean gindoazela ere, barre egin zigun behin, fragataren inguruan bira eginez, Amorrui oihua atera zen, orduan, ez tarri guztietatik.

Eguerdian, ez geunden goizeko zortzietan baino hurbilago animalia harengandik. Farragut komandanteak baliabide zuzenagoak erabiltzea erabaki zuen, orduan.

–Animalia hori gure itsasontzia baino bizkorragoa da. Hori argi dago. Ea gure kanoiaren balak baino bizkorragoa den! Gizon batzuk brankara, azkar!

Brankako kanoia berehala kargatu, eta jomugan jarri zuten animalia. Atera zen tiroa, era bala zetazeoa baino oin batzuk gorago igaro zen, animalia gugandik milia erdira zegoela.

–Ez al dago tiratzaile hoberik? –oihu egin zuen komandanteak– . Bostehun dolar piztia hori zeharkatzen duenarentzat!